



6 ABESLARIREN ARTEAN 3 SARI EKARRI DITUZTE

Gipuzkoako XIII. Kantu Txapelketako ahotsak, eskualdeko protagonistak, bidea egiten jarraitzen dute ▶ 6-7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-12-13**

VII. URTEA 1.851. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

▶ WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Leitzan manifestazioa burutu zen atzo, 'Maxurrenea herrintzat, Utzi pakean' lelopean. ESTI EZEIZA

EHUNKA LAGUNEK HERRIA BAKEAN UZTEKO ESKATU DUTE

LEITZA Udalak deituta jende ugari irten zen atzo manifestazioan kalera, «Guardia Zibilara herritik alde egiteko» eskatuz 4

Sukaldeko olioak «erregai ekologiko» bilakatuko dute

TOLOSA 5.000 inbutu banatzeko kanpaina jarri du abian Tolosaldeko Mankomunitateak 7

Nazio desberdinetako dantza eta musika jaialdia Zinean

LEITZA Immigrazio Programaren eskutik denak bat eginik 4



Emakume Abertzaleon IV. Topaketa Feministak atzo Tolosan. ESTI EZEIZA

Feminismoa ardatz hartuta 350 emakume abertzale elkartu dira

TOLOSA Hausnarketen eta eztabaiden ondoren, manifestazioa egin zuten atzo arratsaldean 5

**Egunkaria
libre!**

**manifestazio
nazionala**

**Abenduak 19, larunbata
17:00etan Bilboko Autonomia kaletik**

munduan libre bizi ahal izateko Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko

Lehen eta orain



Intxaur frontoiaren itxura berriaren estreinaldia

ZIZURKIL • Kirol Astearen baitan Intxaur pilotalekuaren aurpegi berria inauguratu dute gaur 11:30ean. Ondoren hurren partidak jokatu dira, sortu berri den Ziotza Pilota Eskolako eskutik. Frontoia txikienek berotu ostean, handien

txanda etorriko da, Saralegi-Oteiza eta Beloso-Argote irtegu baitira kantxara. Zizurkil goian aurkitzen den Intxaur pilotalekuak «aspalditik zituen hezetasun arazoak». Zapateroren diru laguntza ospetsuez baliaturik, frontoi osoa be-

rregituratu dute arazoekin amaitzeko asmoz. Teilatua guztiz berria du, baita argiak, sarea, aulkiak etab. Alboak lehen irekiak zituen eta orain kristalez itxiak eta lurra ere berritu egin behar izan dute. **ENERITZ MAIZ**

Zurea da hitza



Kolektorearen obrak

Orain gutxi Tolosako kolektorearen obrak bukatzeaz direla irakurri dut komunikabideetan eta zalan-tza bat sortu zait? Orain artea he-

rrian dugun aparkatzeko arazoa kolektoreari leporatzen genion, baina uste dut hauek bukatuta ere arazoarekin jarraituko dugula. Euskal Herria plazako aparkalekua ere kendu egin nahi dute. Gu-

nea oso polita geratuko da, baina non aparkatuko dugu alde zaharrean bizi garenak? parking batean? Ordainduta?

Tolosarra

Egunkaria aurrera!

Lerro hauen bidez Martxelo Otamendi eta beste auziperatuei nire

eta nire inguruko elkartasuna adierazi nahi diet. Euskaldunon Egunkariaren itxiera pasata zegoela zirudienean iritxi zitzaigun epaiketaren berria. Inongo arrazoirik eta argumenturik gabe egingo duten epaiketa izango da nire ustez eta guk behintzat behar den mobilizazio eta ekintza guztietan hartuko dugu parte bidegabekeria

hau salatzen. Hasteko Bilbon datorren astean egingo den manifestazioan izango gara, seguru jendetza bilduko gara, Donostian duela urte batzuk egunkaria itxi zutenean egin genuen bezala. Auziperatuek gure babesa eta laguntza behar dute. Aurrera Euskaldunon Egunkaria!

Aitor

Rriiiiiinnnnngggggg!!!



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Rrrrrriiiiiinnnnngggggg!!!! (Nire mobilaren soinua dela imajinatuko dugu, oraindik ez bait dakit politono edo sintoniak idazteko onomatopeia zein den).

- Bai?
- Osvaldo Carlos Guzman naiz eta Mobi X telefono konpainiatik deitzen dizut: Zu zara Iraitz Lizarraga anderea, ezta? (Botatzen dit arrapaladan eta azentu exotiko batez).
- Bai?
- Nire datuen arabera 29 urte dituzu eta X kaleko, 45. zenbakiko hirugarren solairuan bizi zara. Ez zaude ezkondua eta ez duzu seme-alabarik eta unibertsitate mailako ikasketak dituzu eta zure mobilaren faktura 60 eurokoa da.
- Bai, baina...
- Nik dakidanez, Mobi Y konpainiarekin duzu kontratua bai mobi-

lean eta baita etxeko telefono fijoan ere, honez gain internet zerbitzua ere baduzu baina ordaintzen duzun faktura ikaragarria da, datuek diotenez 120 euro!!! Lotsagarria!!
- Bai, hala da, baina...
- Eta zergatik ordaintzen duzu hainbeste? Ez al dakizu zerbitzu berberak merkeago eskaintzen dizkizuten konpainiak badaudela? Geurea, adibidez.
- (Hara bestea! Beno egia esan ez dut gehiegi begiratu, baina gustora nago neure konpainiarekin eta ez dut aldatzeko inolako asmorik)
Beno egia esan ez dut gehiegi begi-

ratu baina...
- Ba informatuta egon beharko zenutke: begira geuk informazio osoa eskura jartzen dizugu zuk eskatu aurretik. Zeure dirua alferrik gastatzen jarraitzeko asmoa duzu, beraz?
- (Baina...ze arrai!! Tira, atsegina izaten saiatuko naiz) Hara, Carlos jauna...
- Osvaldo Carlos Guzman!
- Barkatu, jauna ni oso gustora nago nire konpainiarekin eta ez dut aldatzeko inolako asmoik. Mila esker zeure eskeintzagatik baina.
- Ederki!! Orduan prezio merkeagoan abantaila berberak eskeintzen dizkizun konpainiari uko egingo diozu, ikusten dut krisi garai hauetan dirua botatzeko gustoko

duzula.
- Aizu barkatu baina...
- Ez, ez, ez... laaaaaasai... bizitza osoa telefono faktura ordaintzeko lanan pasatu nahi baduzu, zero-rrrek ikusiko duzu.
- Aizu! Ez daukazu zertan nire bizitzan sartu.
- Abantailak besterik ez dizkizut eskaini eta zuk ez didazu jaramonik egiten.
- KLONK!! (Telefona eskegi dut)
Jada gehiegi entzun dut; hau fikzio ororen gainetik geratzen da: Hase-re nago, berehala haserre ezinezko bihurtu da eta dar-dar-batean jarri zait gorputza *El ojo te ve, el ojo te ve, el ojo te ve*.
Mugikorra aireanbota dut *el ojo te ve, el ojo te ve* beldurtuta nago; nor ote da Osvaldo Carlos, Jaungoikoa bera? Hiruki barruan sarturikobegia? Gran hermano? *El ojo te ve, el ojo te ve* ENE! Baina ezin dut mugikorra albo batera utzi, bestela epaileren batek frogatu moduanerabili dezake ekintza ilegalen bat egiten ari naizela ezkatatzeko mugikorra etxean utzi dudala argudiatuz. Enfin zientzia fikzioa.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurkumea.** Artzai txakurkume bat galdu da Anoetan, Hernialderako aldean. Inork ikusi edota jaso badu deitu dezala 648 729 339 telefono zenbakira.


LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest gaude. Deitu inongo

konpromisorik gabe honako telefono zenbakietara: 638 944 604 (Gurutze) edota 695 708 271 (Belen).

ALOKAIRUA

■ **Logela.** Neska batek logela bat nahi du alokairuan. Tolosaldean eta ahal bada nesken pisu batean. Deitu 677 505 294 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

■ **Papereko edizioa.** Sartu gure webgunean *Papereko edizioa* eta egunkariko albiste guztiak aurkituko dituzu bertan. Herri bakoitzari dagokion atala ere aurkituko duzu:

www.tolosaldeko-hitza.info

Datorrenaren aurrerapena ikusteko aukera egon da Tolosan

Azoka » Eguberrietako barazkiek, zuhaitzek eta giroak berak, lehen agerraldia eskaini zuten atzokoan.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna datorrenaren ispilu izan zen puntu batzuetan. Produktu batzuen aurkezpena izan genuen, eta Gabonetako produktua askoren agerpena ere ikusi ahal izan zen. Eguberrietako apaingarriak eta arbolak, atzo aurkeztu zituzten, eta hauekin, gardua eta bestelako garaiko barazkiak ere ikusi ziren.

Aipatzekoa izan zen mahai batean aukeran zegoen txerriak. Oso aukera zabala, eta benetan itxuroso suertatu zen. Baita ere artisau ogiaren postuan izan zen berrikuntza. Gari irinarekin egindako ogia irin berezi batekin egiten hasi dira. Garia ekologikoa da eta harritzeko erroten lortzen da irina. Honek galaratza mantentzeko aukera ematen du eta ondorioz, E bitamina guztia irinean geratzen zaigu.

Datorren asteko Gabonetako Azoka Berezian, egundoko aukera eta giroa ikusiko dugula sumatzen zen atzo, eskaintza ikusita batez ere, eta hemendik gonbidapen luzatzen dugu.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.		
Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Xarbota	4,00	6,00
Zain zuria	2,80	-
Erromeroa	4,00	6,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Pertxetikioak		
Onddoo	14,00	24,00
Gamuza	14,00	-
Ziza horia	14,00	-

Fruta

Kiwi	3,50	-
Gaztaina	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Errezil sagarra	2,00	4,00

Barazkiak (sorta)

Tipula	0,80	1,00
Espinaka	2,00	-

Barazkiak (kiloa)

Eskarola lisua	1,00	1,50
Eskarola rizatua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Letxuk	0,50	0,60

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	3,60
Arrautzak	3,50	-
Arroza	1,90	2,00

Gutunak

Udazkenean kultura, hirugarrena, eta aurrera

Urriaren eta txalaparta ikastaroa, mapa festa... Aurten proposamen berri eta interesgarriekin erdian hasi eta azaro bukaera arte, hainbat ekintza eta hitzordu izan dugu Alegian, Udazkenean Kultura ekimenaren baitan. Denetarik eskaintzen saiatu gara, eta emaitzei dagokionez, hirugarren edizio honen balantze baikorra egiten dugu. Antolatutako ekintzek harrera polita izan dute: azoka, ipuin kontalariak, abesbatzaren emanaldia, bertso afaria... Urterokoak bihurtzen ari dira batzuk, eta horiekin batera, eskaintza berria lantzeko ahalegina ere egin da: makrobiotika ikasleak eta gozatzeko aukera izan delakoan gaude.

Indar eta ahalegin handia eskatzen du hilabeteko egitaraua osatzeko eta egiten den guztiarekin ere ez dabi berdin asmatzen, baina urteik urtera proposamena findu eta hobetzeko eronka aberasgarria dugu; gaur egun, tamalez, kulturagintzarako, herrigintzarako, herritarren parte hartzea sustatzeko zailtasunak ez dira gutxi. Alegiarrok, ordea, baditugu arrazoiak baikor izateko, herrian kultur gosea suspertzen ari baita, jendeak ilusioz hartzen ditu proposamenak, eta jarrera horrek elikatzen du gure lanerako grina.

Herritarren parte hartzeari buruz ari garelarik, hara hor Garai Bateko Alegia festak emandakoa. Egun hura gogoratzeko proiektioa izan dugu oraingoan ikusgai, horiere, hainbat lagunek borondate, ahalegin eta ilusio osoz egindako lanari esker. Hasieran kopiak egiteko aukera izango zela iragarri bagenuen ere, hainbat arrazoi tar-teko, gerora kontrako erabakia hartu dugu, eta ez dakopiarik egingo. Batzordekideok askatasun osoz hartutako erabakia da, beraz, erantzukizuna ere gurea da. Ardu-raz eta zuhurtasunez jokatzeko atsekabea sortzen dugu emandako hitza ez betetzeak, baina lasai, egun hark utzitakoa ahazterako bigarrena marxan izango dugu eta.

Kultur Batzordea herriko hainbat taldetako ordezkariak eta norbanakoek osatzen dugu. Gure lanak eta proposamenek helburu bera dute beti: herriari kultur arloko ekarpena egitea, herritarren inplikazioa sustatuz, eta herritarrekiko errespetuan oinarrituz, noski. Aurrerantzean ere lan horretan jarraitzeko konpromiso osoa dugu. Zentzu horretan, gauza bat argitu nahi dugu: kultur batzordetik bultzatzen diren ekimenen erantzulea batzordea da, eta Udala ere bai, batzordean ordezkari izan den neurrian eta honek antolatutako ekimenak babesten dituen heine-

an. Beraz, edozer dela ere (proposamenak, eskariak, kexak...), batzordera bideratu behar da. Hamabostean behin elkartzen gara, taldeairekida —edonorizandaitekelde—, bilerak ere bai.

Bukatzeko, batzordekide izan ez arren beti laguntzeko prest zaretzen guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu. Eskerrak benetan, zuen ekarpen eta laguntzarik gabe gure proiektu asko amets hutsean geratuko liratekeelako; eskerrak, zuen asmo on eta prestutasunagatik, egindako lan guztiagatik...

Elkarrekin kultur kolorez betetako herria margotzen jarraituko dugulakoan gaude, zailtasunetatik ikasiz eta arituaz eraikiz. Egonean bageunde sekula ez genuke izango dabilenaren arriskurik, baina gu ibiltzearen plazerrak, sortzearen gozamenak mugitzen gaitu; kulturagintza ulertzeko moduak bultzatzen gaitu eta auzolan honek me-rezi duelakoan gaude, bai horixe.

Kultur Batzordea. Alegia.

Salus Balza

Gogoan dut gaztetxo nintzenezan, besapean periedikua zeramala, Nafarroako zubitik Mokoroatarraren etxeruntz, eguneroko bisitan. Beti dotore eta atseginaldarterako. Miradorean, nere aiton-osaba Luisekin, Inazio lagun eta irakasleari konpainia eginez egoten ziren.

Honek, bizitzak azken urte mor-doa ohean eman zituen.

Tolosako azken organujole, garai okerrean ofizioa hartutakoa. Ez ordea garaiko Tolosar organujole bakarra; Joakin Pildain eta Maite Iriarte ere herriko ohituraren jarraitzaile izan ziren, baina Madril-en aritu izanak aukera gehiago eskeini zizkien.

Eduardo Mokoroa, Gorritiren kuttuna izan zen eran, Salus, Mokoroatarrena izan zen. Ordurako, eta Inazio XX. Mendearen erdialdera idatzi zuenarekin bat, Sta M^a ko organujole plaza, lan ugari ko organujole kaskarrekoa zen. Gauzak horrela, familia aurrera ateratzeko, herriaren izenean eta elizaren mesedetan irabazitako apur-rarekin, nahikoa lan eta kimen behar zen. Ordur geroztik, gauzak okertu baino ez dira egin; organujolerik gabe, urte gutxitan bigarren konponketa orokorra egiten ari zaio Tolosako herria bere organu historiko maiteari. Zinez ditugu maiteago pertsonak baino haltzari bitxiak. Birgaitze garesti, askotan susmagarriek, xautzen jarraituko dituzte gure ondasunak...

Eskerrak gerra osteko panorama beltza baino egoera xamurra-goan ari garela, gaur egun musikaren aitzakian gabiltzanok. Gure aurrekoek irikitako bideak eskeini zizkigutenei agur eta ohore.

Miguel Zeberio. Tolosa.

B Blogteka

Aminatu Haidarren gutun irekia (09-12-10)

Gaur abenduaren 10 da, Giza Eskubideen Nazioarteko eguna. Giziateriarentzat egun sakratu den egun honetan, oinarritzko eskubideak bermatzearen aldeko eguna den egun honetan; ni, Giza Eskubideen defendatzailea naizena, Giza Eskubideenganako errespetu falta eta injustiziaren eraginez duela 25 egunetik gose greban aurkitzen naiz.

Gaur, Marokoar agintariak nire herritik legez kanpo kanporatu ondoren, Espainiar estatuko gobernuak Lanzaroteko aireportuan legez kanpo erretenitu ondoren eta nere borondatearen aurka, nere seme alabengandik banandua izan ondoren, inoiz bainan gehiago sentitzen dut 2600km-tako hesi batek 35 urtez banatu dituen saharar familien samina.

Gaur, egunero moduan, espetxean aurkitzen diren neure kideengan pentsatzen sufritzen dut. Marokoar gobernuaren erabakiz epaitegi militar baten aurrean aurkeztu eta heriotz zigorraren mehatxupean aurkitzen diren Giza Eskubideen 7 ekintzaileetan pentsatzen sufritzen dut. Inoiz bainan gehiago, marokoar polizia-

egunero erreprimitu eta zapaltzen duen Mendebaldeko Saharako herritarren pentsatzen dut. Eta beraien etorkizunean pentsatzen dut.

Giza Eskubideen Nazioarteko egun honetan, oinarritzko giza eskubideak defendatzen dituzten eta munduan bakea lortzearen

sakrifikatzen diren pertsona askeak zoriondu nahi ditut, era berean premiazko deialdi bat egin nahi diet nere herriaren, saharar herritarren eskubideak babes ditzaten.

Gaurkoa, esperantzarako egun bat da baita ere, egun bat zeinean munduari eta bereziki munduko ama guztiei eskatzen diet neure aldarrikapena, hau da, Mendebaldeko Saharara itzultzea babestu dezatela. Duintasunez, nere seme

alabak besarkatu nahi ditut, beraien eta nere amarekin bizi nahi dut.

Une gogor hauetan, Saharako herritarren eskubideen alde eskeinitako etengabeko babesa eta neureganako erakusten ari den elkartasuna eskertu nahi diot Espainiar estatuko gizaritari.

Harea eskuetan

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/sahararekin/>



Aminatu Haidarren aldeko elkarretaratzea egin zuten atzo Triangulon, ondoren bere eskutitza banatzeko. HITZA



Plazatik abiatuta, herriko kaleetatik barrena zabaldu zituzten leitzarrek, beraien aldarrikapenak. E. EZEIZA

Maxurrenea herriarentzat izan behar duela exijitu dute

Politika » Ehunka leitzar atera ziren atzo eguerdian kalera, eta «Guardia Zibilari herritik alde egiteko» eskatu zioten.

ERREDAKZIOA

Ehunka lagunak erantzun zioten atzo Udalak egindako deia, eta kalera atera ziren, Maxurrenea herriarentzat izan behar duela aldarrikatzera. Honekin lotuta, «inolako indar okupatzailerik ez dutela behar» garbi utzi nahi izan zuten.

Udalaren gehiengoa osatzen duten hautetsi independentistek, eta Eusko Alkartasunakoek era-

man zuten manifestazioko kartela. Bertan, letra larri irakur zitekeen *Maxurrenea herrintzat, utzi pakean!* leloa.

Oraindik, bukatzeko dagoena

Azaroaren 29ko gertakariak salatzeko asmoz, Udalak mozio bat onartu zuen duela egun gutxi egindako Ezohiko Bilkuran. Izan ere, hautetsi independentistek eta Eusko Alkartasunak mozio bateratu bat aurkeztu zuten. Honekin, alde batetik, Maxurrenea inguruko auzokideei bereiziki, eta herritar orori, elkartasuna eta laguntza adieraztea beharrezkotzat jotzen zuten. Gau horretan gertatua argitzea ere exijitzen zuten. Azkenik, beste hainbat eskaeren artean, dei-

egiten zitzaaien herritarrei atzoko manifestazioan parte hartzeko. Eta herritarrek erantzun zuten. Plazatik abiatuta, kalean bera, herri guztian zehar zabaldu zituzten salaketa eta aldarrikapen oihua.

Gertaeretatik hona bi aste igaro dirajada, eta zer gertatu zen oraindik «ofizialki» ez dago argi. Leitzan, azaroaren 29ko goizaldean zauritu zen guardia zibila auzipe-tua dago. Bi delitu egozten dizkio epaileak; alde batetik, delituaren itxurak egitea, eta bestetik, desordena publikoa eragitea.

Hori dela eta, horrenbeste egun igaro eta gero, herritarrek eta Udalak gauzak argitzea eta egia zein den jakitea ezinbestekotzat jotzen dute.



Orienteko dantzak ikusteko aukera ere izan zen atzo arratsaldean. N. LATABURU

Dantzaren bitartez kulturak uztartzen

Leitza » Herrialde ezberdinetako dantza eta musikak entzuteko eta ezagutzeko aukera izan zen atzo arratsaldean.

ERREDAKZIOA

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko Immigrazio Programak antolatuta, dantza eta musika izan zen protagonista atzo arratsaldean. Herrian egun dagoen aniztasunaren adierazgarri, ikusleak izan ziren; lurralde eta kultura ezberdinetako jende lepo bete baitzen Leitzako zinema.

Bertako dantzariak gain, Ekue-dor, Senegal, Errumania eta Ekialdeko taldeak ikusteko aukera izan zen. Erritmo eta modu ezberdinetan, baina bakoitzak ondoan dabilen bezala astindu zuten gorpu-

tza. Dantza, azken batean, kultura bakoitzaren bereizgarria da, eta horierakutsi zuten atzo hainbat lagun. Hala ere, bakoitzak bere herrialdekoa erakustearakin batera, mestizaiaren erakusle, hainbat euskaldunek ere dantzatu zituzten beste herrialdeetako doinuak.

Egunari amaiera goizaldean eman zioten, Torren, Hip-Hop jaialdi batekin.

Gaur, zirkoa

Atzo arratsaldean hasitako asteburuko ekitaldiei gaur emango diete amaiera. Eta horretarako, Kultur Elkartek, haurrek horren gustuko duten zirkoa gonbidatu dute. Bi pailazo protagonista dituen ikuskizuna eskainiko du Zirika Zirkusek. Euren lana *Ilargian* da eta 18:00etatik 19:30era, emanaldia eskainiko dute atzo jaialdia egon zen leku berean, Zinean.

Bengoetxea VI.aren 'sotamanoa' nagusi

Leitza » Oinatz Bengoetxeak 22-17 irabazi zion atzo Julen Reteigiri Iruñeko Labrit pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Oinatz Bengoetxeak Aimar Olai-zolaren aurka jokatu du hurrengolarun batean, hilak 19, BBK Mastersaren finalerdia. Bestea Irujok eta Gonzalezek jokatu dute igandean.

Txapelketa berezi honetako final laurdenetan, atzo jokatu zen Bengoetxea VI.a eta Reteigi Biren artekoa, Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Partida gogorra eta borrokatua izan zen. Bi pilotariak parean ibili ziren baina leitzarren *sotamanoa*-ak errespetu handia sartu zion

markagailuari. Horrekin batera sakez lortutako 8 tantoak aipatu behar dira.

Hasiera batean, Oinatz Bengoetxearen aurka Xalax jokatu behar zuten atzo, baina honek eskuineko sorbalda tendinitisa duenez, Reteigi Bik ordezkatu zuen.

«Nekatuta» partida amaieran

Oinatz Bengoetxeak «nekatuta» amaitu zuen partida, horrela aitortu zuen behintzat leitzarrek. Txapelketa berezi hau prestatzeko denbora handiegirik ez dagoela esan zuen Bengoetxea VI.ak. Hala eta guztiz ere pozik agertu zen, «sufritzea» tokatu arren garaipena lortu zuelako. Julen Reteigiren inguruan galdetuta, «ondo aritu zela eta estu hartu zuela» aipatu zuen leitzarrek. Orain, finalean egon nahi baldin badu, Olaiola II.a garaitu beharko du.

Zure negozioa ulertzen dugu



Ibilgailu Komertzialen
Gama



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com

«Emakume kategoria birdefinitu beharra» dagoela nabarmendu dute



Kultur Etxean izan zen mahai-inguruetako bat, eguerdi aldera. E. EZEIZA

» MAHAI-INGURUAK: HAINBAT IDEIA

Nortasun feminista. Zer da eta nola sortzen da?

■ Sexuen artean dauden bereizkeriak planteatzerako orduan, sexuarekin batera garrantzitsua da sexualitatea, nazioa-kultura eta klasea ere kontuan hartzea.

■ Identitatea eta desberdintasuna eraikuntza sozialak dira: termino historikoetan, kolektiboetan eta botere harremanak azaleratzen dituen terminoetan.

■ Emakumea ez da gorputz eme soila, askoz harago doazen ideiak garatu behar direla. Identitate feminista bera da subjektu politikoa.

Mugimendu feministaren diskurtsoa eta praktikei dagokionez

■ Zapalkuntzaren aurrean eraikitzen ditugu identitate kolektiboak.

■ Mugimendu Feministaren arteko aliantza beharrezkoa da, baita beste borroka batzuekin harremanak eta aliantzak lantzea ere.

Euskal Herria aldatzeko beharrezkoak ditugun subjektu politikoak

■ Emakumeon zapalkuntzak dimentsio politikoa, ekonomikoa eta ideologikoa dute.

■ Euskal emakume langileok praktika feminista iraultzailea egin behar dugu.

Sexu identitateak. Eztabaida berriak

■ Sexu identitatearen eraikuntza prozesu historiko bat da.

feministek utzitako lekukoa hartzen zuten kimutxoak.

Orain jada ez dira kimutxo bat. Urte hauetan auzoetan, herrietan zein eremu ezberdinetan lanean ibili diren emakume guztiok esker. Gaurkoan «jarraitu beharreko norabidea zehaztu eta gure praktika-aren oinarriak definitzen aritu» direla zabaldu dute.

nista aurrera eramateko», gaineratu zuten.

Mugimendu hori aniztasunetik sortu behar delairitz diote: «Esentzia berezitu batez dugu, baina testuingurua konpartitzen dugu. Euskal Herrian sistema patriarkalak adierazpen zehatz bat hartzen du».

Dimentsio politiko, ideologiko eta soziala duen egiturazko zapalkuntza konpartitzen dugunaren ideia ere errepikatu zen atzoko topaketetan. Horregatik, «zapalkuntzen aurrean sortzen dugun identitateak nazioa, klasea, eta sexua-sexualitatea» artikulatu behar dituela diote.

«Identitateak subjektu eta ezberdintasunekin lotura zuzena dute. Mugimendu feministaren subjektu politikoa zailtzen jarri da. Beraz, emakume kategoria birdefinitu beharrean aurkitzen gara, errealitate berriak barnebildu eta inor alde batera utzi gabe», aldarrikatu zuten atzokoan.

Zazpi urte lanean

Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zutenetik zazpi urte pasa dira. «Ordukoa ez zen egun ezagutzen dugun Bilgunea», azaldu dute kideek. Kimu bat zen hasieran, aurreko emakume abertzaleek eta



Manifestazioa egin zuten iluntzean topaketetan parte hartu zutenek. N.L.

Tolosa » Atzo Emakume Abertzaleon IV. Topaketa Feministak ospatu zituzten; identitate indibidual eta kolektiboaz aritu ziren.

NOELIA LATABURU

Emakume Abertzaleon IV. Topaketa Feministetan 350 lagun inguru bildu ziren atzo Tolosan. Herriko hainbat kultur gunetan gai ezberdinak jorratu zituzten. *Biluztuz jantzi* lelopean. Hala, nortasun feministaz, mugimendu feministaren diskurtsoaz eta praktikez, sexu identitateaz eta eztabaida berriei jardun zuten goizean. Arratsaldean, berri, genero politikak eta analisi feministak jarri zituzten mahai gainean.

Azken mahai-inguruaren ondoren, Leidor aretoko kanpoaldetik abiatu eta Zerkausiraino manifestazio jendetsua egin zuten topaketan bildutakoek. Zerkausian bertan egin zuten, hain zuzen, amaiera ekitaldia. Egun osoan zehar topaketen parte-hartzaileak presente izan ziren herrikotako gehienetan, euren aldarrikapenak ikusi eta sentitu zirelarik.

Hainbat ondorio interesgarri

Atzo Tolosan bildutako emakumeak Euskal Herria aldatzeko zein subjektu feminista dituzten beharrezko definitzen saiatu ziren. Horretarako identitate indibidual eta, batez ere, hauek eratzen duten identitate kolektiboaren inguruko hausnarketari ekin zioten.

«Ezinbestekotzat ihardetsi ditugu identitate feministak emakumeak subjektu politiko bihurtzeko erreferentetzat», azaldu zuten Bilgune Feministako kideek eguerdi partean plazaraturiko ondorioetan. «Mugimendu feminista indartsua behar dugu Euskal Herriko aldeketa politiko eta soziala ahalbideratu duen praktika femi-



Babarrun jatea, urteurrenaren harira

ALEGIA » Alegiako Gaztetxea XXII. urteurrenako ospakizunekin ari da buru-belarri. Atzokoan babarrun bazkaria egin zuten. Jende ugari bildu zen mahaiaren bueltan. Bazkariaren ondoren, gainera, Mus Txapelketa antolatu zuten. Gauean Desordutan talde tolosarraren kontzertua entzuteko aukera izan zen; ondoren, DJ festa izan zuten. E. EZEIZA



Aker deabruaren bisita izan da

TOLOSA » Komertzio foroak abiarazitako ekimenaren baitan, atzo arratsaldean kale antzerkiak gozatu ahal izan zuten Triangulon bildu zirenek. Deabru Beltzak taldekoen *Tambeurs de Feu* ikuskizuna izan zen ikusgai. Bertan, Aker deabrua kaleetan zehar ibili zen bere lagun perkusionistekin. Ikuskizun aparta izan zen. N. LATABURU



Azken eraso sexistak salatuz

TOLOSA » Pasa den astean, Topic aretoaren aurrean, bi neska gazte palestinarren eskubideen aldeko eta txotxongilo talde israeldar bati boikota egiteko kartel batzuk jartzen ari zirela, «erasotxoak» izan ziren. Ustezko eraso sexista hau salatuzko herenegun iluntzean elkarretaratzera egin zuten Topicen kanpoaldean bertan, Bilgune Feministak deituta. A. IMAZ



Gipuzkoako XIII. Kantu Txapelketatik, hiru sari etorri dira eskualdera. Naroa Gerestak, berak sortutako 'Infernu berdina' kantarekin 'Nortasunaren Saria' ekarri du besapean. Oihane Sarasolak aldiz, abestutakoa ongi adierazi zuelako, 'Adierazkortasunaren Saria' irabazi du. Talde hoberenaren saria berriz, Villabonako talde gazte bati egokitu zaio.

«Nik egindako abestia kantatu eta honi sentimendua jartzea errazagoa izan da»

NAROA GERESTA Abeslaria

Zizurkil » 'Nortasunaren Saria' irabazi du Gipuzkoako Kantu Txapelketan, berak sortutako abestiarekin.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Zizurkil eta Asteasu artean bizi da Naroa Geresta. Berezkoa du kanturako zaletasuna. Txikitan, trikitixa eskuartearen zuela, bazkalondoak eta plazak alaitzen zituen. Gero bertsotan hasi zen. Eskarmentuak merezimendua jaso du, Gipuzkoako XIII. Kantu Txapelketatik *Nortasunaren Saria* ekarri baitu besapean, berak sortutako *Infernu berdina* abestiarekin.

Nortasun handikoa al zara?

Hala esaten didate eta nik ere hala-este dut. Inor ez zen harritu sariarekin, niretzako aproposa dela esan didate gertukoenei. Nire ahotsa graba da eta kantatzean estilo ezberdina erabiltzen dugu. Emakumeek normalean ahots finagoa izaten dugu eta ahots gra-



AGURTZANE BELAUNZARAN

bea dugu emakumeak, nortasunarekin identifikatzen gaituzte askok.

Nola adierazten da nortasuna abestean?

Faktore asko daude kantagintzan, eta ahots ona edukitzea ez da nahikoa. Entzulearengana iristea da kontua. Kantatzen duzun letra adierazi eta sentitu egin behar duzu.

Finalean, iritsi al zinen publiko-arengana?

Bai, oso gustura kantatu nuen. Amaieran lagun bat etorri zitzaidan begiak bete-bete eginda. Bertsolaritzan aritua naiz eta honek asko lagundu dit ahotsari indarra ematen. Plantea ere bertsolariarena dut, geldirik taula gainean. Txikitan trikitixa jotzen nuen, eta beti eskuak okupatuak izaten nituen

soinuarekin; Txapelketan ez nekien eskuekin zer egin! Gorputzaren espresioak ez dit batere laguntzen. Beraz, ahotsarekin entzulearengana iristen ikasi dut.

Bertsotan ibili izanak ere, lagunduko zizun taula gainean lasai egoten.

Txapelketan oso lasai aritu naiz. Aurreko urteetako Kantu Txapelketan parte hartu izan dut. Eskarmentu horrek ziurtasun handia ematen du, eta hori nabaritu egiten da lehiaketan.

Zein kantarekin lortu duzu 'Nortasunaren Saria'?

Nik egindako sorkuntza batekin. *Infernu berdina* izeneko kantarekin. Oso letra gogorra da, heriotzaren ingurukoa, abesti guztia eraman tiro bat aipatzen dut. Egungo Euskal Herriko egoera politikoa islatu nahi izan dut nolabait.

Gaia ausartegia garai hauetan....

Ausarta eta erreala aldi berean. Osaba erreferente hartu eta haren bizipenak aipatzen ditut, baina egoera pertsonalizatu gabe. Eus-

kal Herriaren alde borroka egin duten horiek gogoratzen ditut.

Inguruko bizipenak idatzi, abestu, sentitu eta entzulearenganaino iritsi....

Horixe da abeslariak egin behar duena, entzulearengana iritsi, aurrean dituzunak hunkitu. Nik egindako abestia kantatu eta honi sentimendua jartzea errazagoa izan da. Beste baten letra abestean, lanketa handia behar du; bere tokian jarri behar duzu, ikasi zer esan

«Osaba erreferente hartu eta haren bizipenak aipatzen ditut, baina egoera pertsonalizatu gabe»

nahi duen eta aldi berean abestia sentitu eta adierazi. Niretzako lorpen handia izan da abesti honekin finalean *Nortasunaren Saria* irabaztea.

Aurreko urteetako baina lan errazagoa izan al da?

Azken orduan otu zitzaidan abestia nik sortzea eta presaka ibili gara kantua musikatu eta prestatzen. Lan asko egin dut aurten ere; Txapelketan aurkeztu eta lan txukun bat egin nahi ezker, prestatu behar harra dago. Esperientziak, zure buruarekin konfiantza handiagoa izatea dakar, baina prestatu beharrra dago.

«Abestea terapia bat da niretzako, barreterapia eta musikoterapiaren pareko»

OIHANE SARASOLA Abeslaria

Ibarra » Oihane Sarasola, ibartarrak, 'Itxaropena' abestiarekin 'Adierazkortasunaren Saria' irabazi du.

Gipuzkoako Kantu Txapelketan irabazten duen bigarren saria da aurtengoa. Duela lau urte sari nagusia irabazi zuen, Euskal Herriko Txapelketarako txartela lortuz. Pasa den urtean, Txapelketak talde bateko ahotsa izateko aukera eman zion. Aurten berriz, *Adierazkortasunaren Saria* arekin itzuli da Donositatik etxera.

Abestiarekin adierazi beharrekoa ongi adierazi zenuen orduan?

Jendearengana iristea da kontua, transmititzea. Abesten duzuna ahotsarekin eta gorputzarekin adieraztea. Eta nik, sentitu eta gozatu egiten dut abesten ari naizen hori. Finaleko egunean oso urduri banengoan ere, taula gainera aterata eta indartsu sentitu nintzen.

Zein kantu sentitu zenuen hain zure, 'Adierazkortasunaren Saria' irabazteko?

Su Ta Gar taldearen *Itxaropena* kantatu nuen. Musika berriz, Jagoba Astiazaranek prestatu zidan. Hark ere badu bere meritua sarian. **Hau ez da hala ere Txapelketan lortu duzun sari bakarra.**

Txapelketan parte hartu nuen lehen urtean, duela 4 urte hain zuzen ere, finalerako txartela lortu nuen, Gipuzkoako Lehenengo Sariarekin. Arriagan egin zen Euskal Herriko Txapelketa eta esperientzia bezala oso positiboa izan zen. **Txapelketak ateak ireki al dizkizu musika munduan?**

Pasa den urteko Txapelketan, musika talde bateko partaideak zeuden publikoaren artean. Nire ahotsa beraiekin taldearekin egokitzen zela eta beraiekin abesteko gonbitea egin zidaten. Txapelketatik sari handi bat eraman dut aukera honekin. Urtebete daramagu elkarrekin eta udan Bizkaia eta Araba aldeko herrietan ibili gara. Gogoan



AGURTZANE BELAUNZARAN

dut, Araiako herri txiki bateko festetan, herritar guztiak, dantzan jarri genituela.

Nola gogoratzen duzu lehen kontzertua?

Oso-oso urduri nengoen. Taldeko ahots bakarra naiz eta horrek presio handia sorrarazten zidan, baina lehen kontzertuko kontua izan zen. Orain, taula gainean lasai ego-

ten naiz; abesten eta dantzan, gertatu ere egin gabe gainera.

Zein estilo lantzen duzue zuen taldean?

Ska-reggaea doinuak jorratzen ditugu, Emon taldean. Erritmo mugituak dira eta jendea dantzan ikustea ikaragarria da niretzako.

Bertsioak edo kantu propioak abesten dituzu?

Momentuz bertsioak ditugu kantutegian. Inprobisazio batzuk egiten ditugu gure sorkuntzekin, baina entseguetan soilik.

Kantua zer duzu, afizio edo ofizio?

Afizioz abesten dut. Ofizio bihurtuko balitz, ez nuke hain gustura egingo, obligazio bat bihurtuko litzateke. Terapia bat da niretzako abestea, barreterapia eta musikoterapiaren antzeko, kantuterapia egiten dut. Umore honez nagoe-

«Jendearengana iristea da kontua; transmititzea. Eta nik, sentitu eta gozatu egiten dut abestean»

nean abestu egiten dut eta triste nagoenean ere alaitzeko abesten dut. Ikusten duzun bezala abesten pasa dezaket eguna.

Eguneroko bizitzan erabilgarria al da 'kantuterapia' hori?

Inongo dudarik gabe, bai; bizitzan pertsonalean eta profesionalean gainera. Gureak-en egiten dut lan nik, Zabaltzen proiektuan. Bertan ezinduen autonomia bultzatzen dugu. Gabon kantak abestea proposatu nien, eta erantzun ezin hobe izan dugu. Lankideak kitarra joko du eta nirekin, abestiak entseiatuko dituzte... Ilusio handiz hartu dute ideia.



Aiora Irazusta, Garazi Esnaola eta Izaro Otaegi Taldekako txapelketako irabazleak, Kantuki taldeko musikariekin A.B

«Gure musikarekin jendea dantzaz ikusi nahi dugu»

Villabona » Talde sortu berria izan arren, Txapelketatik saririk potoloenarekin etorri dira billabonatarak.

Tarazi Esnaola, Izaro Otaegi eta Aiora Irazustaren taldeko lanak, Gipuzkoako Txapelketan saririk potoloena jaso du, Mikel Urdangarinen *Non geratzen da denbora* kantuarekin. Nabaria da poza eta ilusioa gazte hauen aurpegietan.

Saria espero ez bazuten ere, epaimahaiarentzat onenak izan ziren: «Sorkuntza lanak asko baloratu dira aurtengo Txapelketan, eta Azpeitiako taldeak irabaziko zuela usten genuen», aipatu digu Aiorak.

Kantu Txapelketan arituak

Aurtengoa ez da izan hiru nesken-tzat Txapelketan parte hartzen duten lehenengo aldia. Duela hiru urte, Izaro eta Aiora, Binakakoen Mailan irten ziren. Garazik bere aldetik berriz, abesti bat musikatu zuen pianorekin. Ondorioz, epaimahiaren aurrean arituak dira lanean beraz.

Kantu Txapelketan ahotsa baloratzaren arren, atzean musikari ugari izan zituzten hiru neskek. Sortu berria den Villabonako Kantuki taldekoak hain zuzen ere.

8 musikari taula gainean

8 lagunek osatzen dute Kantuki taldea, ahotsak Garazi, Izaro eta Tomas badira ere. Kantu Txapelketan, Aioraren laguntza izan zuten. Talde ezberdin bat sortzea dute helburu, erromeri talde gutxi baitaude Euskal Herrian taula gainean musikariz bete daudenak. Gitarra, baxua, poxpolina, bateria, biolina, akordeoia eta piano soinuekin abestiek ukitu bereziak dituztela aipatu du taldeko bateria jotzen duen Odei Esnaolak.

Talde berria

Oinkari dantza taldeko musikariak dira eta udan Murtziara (Espainia) egindako bidaia batean, taldea musika banda bezala egitura-tzea otu zitzaion. Geroztik, Kantu Txapelketan parte hartzea erabaki

Atzo Hernanin eskaini zuten kontzertua eta hilaren 26an Villabonan eskainiko dute

zuten. Esan eta egin. Sari batekin etxeratuz gainera.

Sariak musika munduan atek irekiko dizkien itxaropena dute gazteek. «Herri Irratien Mikel Markezek duen irratsaioan, finalean guk abestu genuen kantua jarri dute eta hau gu ezagutaraztera eramateko modu on bat da» esan digu Garazi Esnaolak. «Herriko bi

neskek ere, Kantu Txapelketan Sari nagusia lortu zuten eta egun Lain taldeko ahotsak dira» gaineratu du Izarok.

Asteazkenero biltzen dira Villabonako Txermin ikastolako goiko solairuan entseguak egiteko.

Abuztuaz geroztik gogor ari dira lanean, 4 orduko euskal kantuen errepertorioa baitute. Horretarako, entseguak eta giro ona edukitzea baloratu dute taldekideek. Giro on hori ere entzuleei transmititu behar baitaize.

Kontzertuak

Talde berria izaki, oraindik kontzertu gutxi eman dituzte. Finalaren aurreko egunean estreinatu ziren Amasako plazan. Villabonako musika egunean berriz, herritarren aurrean aritzeko aukera izan zuten. Ondoren, Anoetako gazte-txean aritu ziren.

Hernaniko plazan atzo eskaini zuten kontzertua. Gabonetan berriz, abenduaren 26an, herritarren aurrean joko dute bigarren aldia Kantuki taldekoak.

Plazarik plaza

Datorren udan plazarik plaza aritzeko amorratzen daude gazteak. Hori da beraien helburuetako bat. Euskal Kantuekin herriko plazak alaitzea. Hala ere, aurrera begira beraien musika egitea amesten dute eta jendea dantzaz eta gozatzaz ikusi nahi dute.



Kristalezko ontzietan baino hobe plastikozkoetan botatzea olioak. ASIER IMAZ

Sukaldeko olioak etxekalte izan ez dadin kanpaina abian

Tolosa » Eskualdean 5.000 inbutu banatuko dituzte. Abenduan zehar zozketa bat ere martxan jarriko dute.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitatean bi modutan biltzen zen sukaldeko olioak: furgoneta baten bidez, alde aurretik adostutako egunean, eta Tolosako San Blasako Garbigunean.

Orain berriz, Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundia-aren elkarlanari esker, 70 edukiontzi finko jarriko dituzte eskualdeko hainbat puntutan, herritarrek 365 egunez eta egunean 24 orduz, zerbitzua eskura izan dezaten.

«Erregai ekologikoa»

Erabilitako olioak, sukaldekoak beti ere, plastikozko botila edo brik ontzietan sartu behar da. Ondoren

ondo itxi eta edukiontziatarara eramane behar da. Ez da gomendagarria beirazko botilak edo potoak erabiltzea, edukiontziaren utzitakoan hautsi egin baitaitezke.


Ondoren, bildutako hondakin guzti hau Altsasura eramango dute, biodiesel egiteko. Hau da, sukaldeko hodiak eta ibaiak zikintzetik, «erregai ekologikoa» izatera pasako da etxeko olioak.

Kanpaina abian

Edukiontzi berri hauekin batera, ingurumen heziketa kanpaina jarriko dute martxan, «hiritarren parte hartzea sustatzeko».

Kanpainaren barnean 5.000 inbutu banatuko dituzte puntu desberdinetan: alde batetik herrietako azoketan lortu ahal izango dira eta bestetik udaletxeetan.

Bestalde, Mankomunitateak landa-etxe batean asteburu bat igarotzeko bost sari zozketatuko ditu, bilketa honetan parte hartzen duten guztien artean. Kanpaina hilaren bukaeran amaituko da.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Zizurkil.** Intxaur frontoiaren inaugurazioa 11:30ean. Ondoren partidak izango dira.
- **Tolosa.** Zerkausion Uzturre fundazioaren *Abertzaletasuna zure eginez bizi*. Goizean zehar euskal kantuak, bazkaria... eta ekitaldi politikoa Iñigo Urkulluren, EAJren presidentearen, eta Joseba Egibarreren, GBBren presidentearen, eskutik. Ekitaldi honetan Txato Agirre, Mikel Atxaga, Begoña Rebueltta eta Gorka Agirre jeltzaleak gozango izango dituzte.
- **Amezketeta.** Jostunen afaria Errekalde tabernan 20:00etan jubilatuek antolatuta.
- **Ibarra.** Udaltzatzen osoko bilkura etzi, hilak 15, 09:00etan.

Mendi irteerak

- **Tolosa.** Intxurreko kastrora ibilaldia 10:00etan Aldabatik irtenda.

Zinema

- **Tolosa.** *Supertramps* animazio filma euskaraz Leidorren 17:00etan.
- **Tolosa.** *Soy leyenda* filma Bonberean 19:00etan.
- **Leitza.** *Zirika* Zirkus 18:00etatik 19:30era Zinean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 4610.
- **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adieraztako esanen eta irtizien erantzukizunik.



Josu Agirrek irabazi du banakakoan

IBARRA » Gipuzkoako Partida Azkarren Banakako Xake Txapelketa jokatu zen atzo Belabieta kiroldegian. Bertan 24 lagunek hartu zuten parte, tartean eskualdeko lauk. Ohikoa den bezala, ligaxka moduan jokatu zuten. Irabazlea Josu Agirre izan zen, bigarren, Aitor Alkaide geratu zen, eta hirugarren, Jesus Mari Agirretxe. Gaur beste jardunaldi bat izango da, eta taldeka ariko dira. Toki berean izango da, 10:00etatik aurrera E. EZBZA

A Agurrak



Zorionak!
Ekhi Arrieta Kortajarena (Amasa-Villabona). Gaur 4 urte. Muxu handik familiaren partetik. Aupa Erreala!



Zorionak!
Joxepak bihar 83 urte beteko ditu. Gure zorionaren izaera zure izaerak sortua da.

P Publierreportajea: Zeu ileapaindegia, Santa Klara 8

Har ezazu zure txanda ordutegi berri eta talde berreskuratuarekin

Tolosa » Zeu ileapaindegian koloreetan azken teknikak, ilea eta buruazalerako tratamenduak, tokaduak, makillaje profesionala, era guztietako lanak,... eskaintzen dituzte.

Zeu ileapaindegia bere ordutegia ordubetez zabaldu zuen abenduaren 1ean: asteartetik ostiralara 10:00etatik 19:00etara jarraian eta larunbatetan 09:00etatik 14:00etara izango dira, beraz, bezeroaren zerbitzura. Gainera, lantaldea berreskuratu dute eta aurrerantzean Ainhua Zumetak, Koro Garciak, Izaskun Arrezibitak eta Nagore Bordak osatuko dute profesionalen taldea. Txanda hartzeko deitu **943 67 14 27** telefono zenbakira.

Zeu ileapaindegia eskaintza zabala eskaintzen die euren bezeroei, zerbitzu osoa eta profesionala emate aldera. Tratu pertsonalizatua ahaztu gabe koloreetan Ingalaterratik datozen azken teknikak erabiltzen dituzte; teknika hauek kimikoki kolorazioan punta-puntakoak dira, koloreen irisatzea deritzona, hain zuzen.

Bestalde, tratamendu mailan ilearentzat eta larruazalarentzat infusioak erabiltzen dituzte. Permanenteentzat ere teknika zaharberriak aplikatzen dituzte, era askotarikoak gainera. Honi guztiari ilearentzat Euskal Herrietik eta Londresetik ekarritako apaingarriak (tokaduak) dituztelabatu behar zaio. Etxerako produktuak ere saltzen dituzte Zeu ileapaindegian.

Modari atentzio berezia prestatzen diote Zeu ileapaindegian, horibai, beti bezeroari hobekien dagokionari erreparatu eta nahi duena errespetatuz. «Bakoitza eroso sentitzea lortu nahi dugu eta egindako lana ahalik eta iraupen luzeena izatea», dio Ainhua Zumetak. Honi lotuta, makillaje profesionalako produktuak ere badituzte bezeroen eskura.

Era guztietako lanak eta beherapenak

Adin eta jende mota guztiei zuzenduriko eskaintza dute Zeu ileapaindegian. Promozio bereziak ere egiten dituzte; Hala, 25 urtetik beherakoentzat, %20ko beherapena dute eta familia ugariarentzat, berriaz, %10ekoa. Erraztasun eta aukera guztiak dituzte, beraz, Zeu ileapaindegian.

libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

www.egunkaria.info

Abenduaren 19an
Egunkaria libre!
Manifestazio Nazionala Bilbon

Autobuserako txartelak salgai (10€)

Tolosan: Hitzan, Galtzaundin, Rakun eta Denak tabernan

Villabonan: Ogi-goxon
Asteasu: Patxinen

Abenduaren 15ean
konzentrazioa
arratsaldeko 20:00etan
Triangulon.

